



Pellizar hotela botatzeko lanak prest daude, bertan etxebizitzak egiteko

HOTELA ▶ Hotela Aste Santuaren ondoren botako dute, salmenta libreko 27 etxebizitza egiteko ▶ 3



Hotela botatzeko lanak prestatu dituzte. RAUL PEREZ

KULTURA ▶

**Kudaik arima
saldu du
bigarren
diskoan**

'Arima eroslea' lana
kaleratu berri du
taldeak, eta oso pozik
geratu da ▶ 6



Kudai taldea. KUDAI.ORG

XAKEA ▶

**Donostia Hiria
txapelketa gaur
hasiko da, 126
parte-hartzailerekin**

Euskal Herriko xake lehiaketarik
onena da, bertan boluntarioek
egiten duten lanari esker ▶ 8



Xabi Prieto. ARGAZKI PRESS

REALA ▶

**Bernabeun
ezustea
eman nahi
du gaur
Realak**

Konplexurik gabe,
haien armak baliatu
nahi dituzte Madrilen
txuri-urdinek ▶ 7

LORETOPETIK ▶ XABIER OTAEGI (PAILAZOA)

Xoxomikote



Urtaro entzun izan diot gure amonari: martxoa zitala izan ohi zenez, urte batez, hain latza izan ez zela ikusita, hogelita hamargarren egunean, artzain batek trufa egin nahian halaxe esan omen zion:

«Ai Martxo, Martxo, ez haiz hain halabete gaiztoa izan. Nire bildotsik txikiak ere errez egiten dik erreka gainetik salto».

Martxoak, orduan, amorraturik, honela eskatu omen zion Apirilari:

«Apirila, Apirila, emaldak egun eta erdi, neureak ditudan beste bat eta erdi-erkin, artzain harropuzari kenduko dizkiot ardiak, aharia eta begia».

Eta Apirilak eskaera bete zuenez, hiru egunez, ezagutu den ekaitzik gogorrena jaurti omen zuen. Ibalak gainezka egin eta artzainaren artalde osoa ito zen. Bizirik eutsi ahal izan zuen bakarria, aharia, bizkar gainean hartuta ihesari ekin zionean, estropozo egin eta hankaz gora erortzean animaliaaren adarrak begia ziztatu eta hustu egin zion, eta aharia bera ere ibalak eraman zuen. Hara nola

gelditu zen gure artzaina: ez artalde, ez ahari eta ez begi. Modu honetan sortu omen ziren xoxomikoteak.

Halaxe argudiatzen zituen amonak Martxo eta Apirilaren arteko eguraldi txarrak: «Noski, xoxomikoteak ditugu eta...».

Gertu-gertuko istoriotxo zelakoan nengoan, baina jakinminak jota, Pello Zabalen *Naturaren mintzoa* liburura zuzendu naiz badaezpada ere.

Pelloc jakin duenez, Gaztela aldean ere esaten omen da: *Dijo Marzo al pastor: con tres días que me quedan y tres que me preste mi hermano Abril, he de poner tus ovejas a partir.*

Izan ere, «xoxomikote egunak, tristeak eta ilunak», direla esan ohi dute.

Gotzon Garatek bildua omen da, beste: «Martxoaren 29aren eguerditik apirilaren 3aren eguerdira erdi dira, hots, martxoaren bi egun eta erdi eta apirilaren bi egun eta erdi. Ez harritu eguraldi txarra izatea, xoxomikotetan gaude eta».

Aurtengo xoxomikoteetan ekaitzik ez eta eguraldi aparta izan dugu, haize atsegin, eguzki epel eta zero distiratsua. Aurtengo xoxomikoteek aro berriari ongi etorria emateko aurpegi irribartsua erakutsi digute. Horregatik, nahiz eta ezkorrenek zuhur jokatu behar dela adierazi, itxaropentsu egon behar dugula sentitu dugu gehienok.

«Xoxomikote, esperantzari lehio bat zabaldu omen diote...».

IRITZIA ▶ IÑIGO LANDA (ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA)

Herreraren ikasbidea

Errege-bidea. Historian idatzita aurkitu dugun Herreraren lehen alpamena 1467. urtekoa da. Dokumentua Iparragirre izeneko sagasti baten salmenta bati buruzkoa da, eta honela dio: *el camino real llamado Peyre-ra, que descende de la dicha tierra de Alza al molino de Herrera*. Herrera hura, beraz, ur-ertzean zegoen errota bat zen eta Errenteria Donostiarekin lotzen zuen errege-bideari lotuta zegoen. Lehen alpamen hartatik gaur egun arte, bideari eta Herrerari halabeharrezko harreman luze eta estu bat bizitzea egokitu zale, elkarren arteko nahitaezko menpekotasun batean. Mendeetan, errepede berriak egin behar izan direnean, beti Herreraren erdi-erditik pasa behar zutela zirudien. Aldi berean, Herreraren bide ondoan ez balego ez zen den modukoa izango: errepede nagusiaren eraikuntzak San Luis plaza sortarazi

zuen ur-gainean XIX. mendean, eta Zapino auto istripu hark ekarri zituen San Luis parrokia eta La Salletarren ikastetxea.

Bidegurutzeta. Jende askoren topalekua izan da Herrera, eta horretan garrantzi handia izan du portuak. Herrerako ontziralekutik erregeak, bidaiariak, soldaduak, garralolariak... igaro dira. Askok erromantizismoz beterik ikusi zuten txoko hau: Victor Hugo, Wilkinson... Breton de los Herreros autorea, adibidez, La batelera de Pasages antzerkian, honelako hitzak jarri zituen Bureba kapitainaren ahoan: *¡Bien haya una y mil veces / la playa de la Herrera, / que cría entres sus peces / tan linda batelera!* Gizonen eta emakumeen topalekua ez ezik, umeen topalekua ere izan da. Izan ere, Herreraren inguruan bildu ziren ikastetxe zein eskola txiki asko XX. mendean: Mirakruzgainako La Asun-

cion ikastetxearen ondoren, Alza osoko eta Pasalako neska-mutilak bildu zituen Lasalletarren ikastetxea etorri zen. Horrez gain, *señorita* batzuek haien eskolak jartzeko leku aproposa iruditu zitzaizten: Peruene-berri etxeko behealdean, Gaiztarro jauregiko eralkin batean, San Inazio galtzadan, eta Merino etxean. Jende askoren bizitzan bidegurutzeta izan da Herrera.

Trenbidea. Herreratarrek, bideekin daukaten identifikazioaz jabeturik, trenbidearen zubia auzoko ikur bihurtu dute. Hala agertzen da behin eta berriro elkarten logoetan. Itxuraz behintzat, trenbideak ezer gutxi ekarri dio auzoari, trabak eta oztopoak baino. Hala ere, injinertzako obra handi hori modernitatearen ikurra izan zen garai batean, eta sendotasuna eta iraunkortasuna transmititzen du. Agian, askori trenak bidaiaren irudia ekarriko dio gogora,

txoko honetara urrutitik ekarri gaitu, eta,aldi berean, eguneroko zuloak gu ateratzeko gaitasuna du.

Gurutze-bidea. Kalbario luze bat ibiltzea egokitu zailo auzoari. Azken hamarkadetan, etenik gabeko eta bortizki ikusi dugu nola desagerrarazi egin dituzten auzoari mortasuna ematen zioten eralkin eta instituzio guztiak: frontoia, ikastetxea, eliza, Arruabarrena etxea... Peruenezar baserria ere bota dute. Hortik aurrera, itxaropena baino ez zaigu gertatzen, oinarri sendoak dituen itxaropena.

Bidelagunak eta ikasbidea. Altzako Historia Mintegiak egin duen hogeituroteko bidea, herrertar asko izan ditu bidelagun eta laguntzaile. Zorretan gaude Herrerako elkarte eta jende bikainarekin, haieganetik jaso baitugu iraginarikiko atxikimendua, orainaldiarekiko konpromisoa, eta etorkizuna irabazteko kemena. Historiak itxaropena soilik eskaintzen digula esan du Fernando García de Cortazar historialariak. Herrerako historiak, behinik behin, hori horrela dela erakusten digu.

DATUA ▶

26

milioi bidaiari. Tranbia Konpainiak 26.219.165 bidaiari izan zituen laz konpainiako autobusetan —2004an baino 217.000 gehiago—. 4.885.912 bidaiari Amara eta ospitaleen arteko linean izan ziren. Haren atzetik, Alzakoak izan zuen bidaiari gehien: 3.806.914. Benta Berriko lineak 2.406.035 bidaiari izan zituen, bestealde; Mutualidades-Martutenek, 1.694.160; Gros-Amara lineak, 1.525.072; Añorgakoak, 1.337.562; Bidebietakoak, 1.287.402, eta Egia-Inbaurrondok, 1.280.497 bidaiari.

ESANA ▶

ANDRES NAGEL
ARTISTA

«Artearen inguruan ibiltzen den jendeak artistari buruzko ideia erabat okerra du»

«Gauza garrantzitsuen gainetik hutsalkeria hobesten duten ikuspegi komertzialak arriskutsuak dira artearentzat»

«Artista lanbidea terapia da niretzat. Betidanik izan dut sortzeko behar sutsua»

IRUTXULOKO
HITZA.INFO

Inkesta. Reala salbatuko al da? Oza-ozta bada ere, botoa emandako gehienek Realak Lehen Mailari eutsiko diotela uste dute.

▶ Bai %53.

▶ Ez %47.

▶ «Zaila da, baina ziur nago Real Madrili irabaziko diogula, Bernabeun jokatu arren».

Martin.

▶ zure kritziaren berri emateko, iritzia@iruhulokohitza.info eta Katalina Etxezagi 36 behakoa helbideko edo 943 44 65 32 faxa erabili, izena adierazita; Hitzak moztako eskubidea du
▶ Irutxuloko Hitzak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzulizunik